

ZULO, ZULO, ZULOTXO,  
ZIZA, ZI, ZIZARETXO.  
SAGARRA JANEZ GERO,  
ZER JAN AMONATXO?  
ZIZA, ZI, ZIZARETXO. <sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Lokomotora berria liburua.

ZURRUT, ZURRUT, ZURRUT,  
URA EDAN NAHI DUT.  
BAT, BAT, BAT,  
LOTAN DAGO BEÑAT.<sup>2</sup>

---

<sup>2</sup> Oharra: "Zurrut, zurrut, zurrut" esaten den bitartean, edalontzitik edan. Olerkia bukatzen denean, denok behatza ezpainetan, "xxxxxxxx" esango dugu.

TIK-TAK, TIK-TAK  
EGITEN DU ERLOJUAK  
TAK-TIK, TAK-TIK,  
POZIK ETA ZUTIK!

A, O, I,

ZIRKUAN NAGO NI.

A, E, O, I, U,

LEHOIAK GIZONA IRENTSI DU.

I, E, U, O, A,

LEHOIAREN TRIPATIK

GIZONA ATERATZEN ARI DA MAGOA.

A, E, A, U,

ATERA DU.

ATERA DU.

A, O, E, A, O,

TXALO ETA TXALOOOO<sup>3</sup>

---

<sup>3</sup>Joxan Ormazabal, Urtxintxa argitaletxea (moldatua).  
Oharra: denok txalotzen bukatuko dugu.


A, A, A,  
ASKO MAITE DUT AMA.

E, E, E,  
UMEAK HEMEN GAUDE.

I, I, I,  
IKASTOLAN IKASI.

O, O, O,  
OHEAN EGIN DUT LO.

U, U, U,  
OILARRAK KUKURRUKU.<sup>4</sup>



<sup>4</sup>Zubia-Santillana argitaletxea.

Oharrak: egin 5 talde eta bakoitzak bokal baten esaldia esango du.

TZA, TZA, TZA, PASATZEN DUT ERRATZA.

TZE, TZE, TZE, NIRE GELA GARBITZEN.

TZI, TZI, TZI, AMANTALA DUT JANTZI.

TZO, TZO, TZO, ZIKINDU NINTZEN ATZO.

TZU, TZU, TZU, ORAIN GARBI ZAITEZ ZU! <sup>5</sup>

---

<sup>5</sup> *Haurtxoa Bi* liburua.

Oharra: 5 talde, talde bakoitzak bakoitzak tza, tze, tzi, tzo edo tzu esango du.

TXEPETXA, TXEPETXA,  
TXORI TXIKIA,  
TXIP, TXIP,  
ZUHAITZEAN.

TXEPETXA, TXEPETXA,  
KOKOTS TXIKIA,  
ETOR ZAITEZ HEGAN. <sup>6</sup>

---

<sup>6</sup> *Haurtxoa Bi* liburua.  
Beste gaia: ANIMALIAK

# ETXE TXIKI BATEAN TXEKORRA, TXORIA ETA TXERRIA.<sup>7</sup>

---

<sup>7</sup> *Haurtxoa Bat* liburua.  
Beste gaia: ANIMALIAK



ZORTZI TXORI  
TXORATZEN ZIREN,  
TXIO-TXIOKA KANTATZEN ZUTEN.  
TXANTXANGORRI  
ETA KASKABELTZ  
TXISTUKA ARITZEN ZIREN. <sup>8</sup>

---

<sup>8</sup> *Haurtxoa Bat* liburua.  
Beste gaia: ANIMALIAK

MATXIN, MATXIN,  
MATXINSALTO;  
MATXIN, MATXIN,  
SALTARIN.

HEMENDIK HARA DABIL,  
MATXINSALTO TXINTXOA  
TXUKUN-TXUKUN, TXOKOAN. <sup>9</sup>

---

<sup>9</sup> *Haurtxoa Bi* liburua.  
Beste gaia: ANIMALIAK